

## P08 - Elhuyar Zientzia Azoka

Elhuyar Zientzia Azoka Euskal Herriko 12tik 18 urtera bitarteko gazteei zuzendutako proiektu-azoka da. Ikerketa-galdera edo erronka teknologiko bati erantzuna emango dion proiektu bat aurkez daiteke.

Ikasturtean zehar STEM profesionalen laguntza izaten dute. Ikasturte bukaeran, Bilbon, azokako standetan herritarrei eta ebaluatzaileei aurkezten dizkiete proiektuak, eta sariak banatzen dira.

Ikasturtea

**1. DBH, 2. DBH, 3. DBH, 4. DBH**

**1. Batxilergoa, 2. Batxilergoa**

**Bestelakoak: Lanbide Heziketako lehen zikloa ere bai, eskolaz kanpo.**

Data

**2024ko maiatzan edo ekainan**

Lantzen diren irakasgaiak

**Guztiak**

Hizkuntza

**Euskara**

Irismen geografikoa

**Araba**

**Bizkaia**

**Gipuzkoa**

**Nafarroa**

**Iparalde**

Erakunde sustatzailea

**Elhuyar Fundazioa**

### Zer ikasten dute ikasleek?

Gehienez lau ikasleko taldeka elkartuta, gazteek STEAM proiektuak garatzen dituzte, eta horri esker ikerketa zientifikoa eta garapen teknologikoa barrutik ikasteko aukera dute, baita XXI. mendeko konpetentziak garatu ere.

Ikasturtean zehar STEM profesionalekin egoteko aukera izaten dute, bai egiten ari diren proiektuan laguntza jasotzeko, bai mundu profesionala ezagutzeko, genero ikuspegia kontutan hartuta.

Standetan egiten den ebaluazioan, proiektuaren kalitatea, ahozko aurkezpena, originaltasuna, jasangarritasuna eta genero-ikuspegia kontuan hartzen dira.

Horretaz gain, nazioarteko esperientziak eta gertuko ikerkuntza profesionala ezagutzeko aukera ere izan dezakete, Elhuyarrek beste erakundeekin duen elkarlanerako aliantza-sareari esker.

### Baliabideak

- Udazkenean irakasleentzako online trebakuntzak irekian eskaintzen dira, praktika onak eta inspiraziorako baliabideak aurkeztuta.
- Ikasleei laguntzeko izena ematen duten STEM profesionaleri ere online trebakuntza eskaintzen zaie, STEAM hezkuntzaren markoa eta gazteei lagutzeko gomendioak partekatuta.
- Izena ematen duten taldeek STEAM profesional baten laguntza eskatzeko aukera dute.

### Garapena

1. Izen-ematearen irekiera: Urria.
2. Irakasleentzako online trebakuntzak eta inspirazio-saiok: Udazkena.
3. STEAM profesionalentzako online trebakuntzak: Azaroa
4. STEAM Proiektuak garatu, STEAM profesionalen laguntzarekin: Urritik martxora.
5. Zientzia Azokarako tokia eskatu: Martxoa edo apirila (izena emanda daudenentzat).
6. Elhuyar Zientzia Azoka, Bilboko Areatza pasealekuan: Maiatzaren bukaera edo ekainaren hasiera.
7. (Sariak) Kanpoko zientzia-azoketara bidaiak eta ikerketa-zentroetan egonaldiak: hurrengo ikasturtean.

### Helburuak

Gazteei zientzia eta teknologiarekin lotutako bizipenak eta mugikortasun-aukerak eskaintzea, aukera-berdintasuna bermatuta; zientzia- eta teknologia-sistemako eragile aktiboak inplikatu eta euskara sustatuz.

### Curriculumaren edukiak

STEAMetako edozein arlotako proiektua aurkez daiteke. Proiektuetan lan egitea sustatzen denez, konpetentzia zientifiko-teknologikoez gain, gazteek zeharkako konpetentziak ere garatzen dituzte.

WEB <https://zientzia-azoka.elhuyar.eus/>